

LORETOPETIK ▶ KOLDO ALMANDOZ (ZINEMAGILEA)

Okinaren uniformeak



A lolea del Pinar. Guadalajara. Madrilatik 136 kilometrora. Iñigoren Renault 5aren gurpil bat zulatu eta balantzaka ibili ostean, *bueltakanpana* eman eta kriston ostia hartu genuen. Toki berean hil zen beranduago kotxe istripuan Gutierrez Mellado teniente koronela (Tejerori aurre egin zion gizon zahar eta estu hura). Renault 5a *siniestrototaletik* ahal izan genuen moduan gida eta gu laguntzera geratu zen auto gidari anonimo batek «Ya he llamado a la Guardia Civil» esan bezain pronto Iñigo eta biok elkarrri begiratu eta kotxean generamatzen pegata eta diskoak ezkututzen hasi ginen. Beldurra. Eskuak eta kopeta odoletan, errepidean barriatu-tako gauzak jasotzen oroitzen dut nire burua. Kotxe patruilan sartu eta ospitalera

eraman gintuen *pareja* hura ongi portatu zen gurekin. Hainbat istripu eta mendi erreskatetan ere euren bizitza arriskatzen dute gugatik. Hori hala da. Egia borobila. Eta hala eta guztiz ere, batzuen harridurarako, beldurra diegu uniformatuei.

Militarrak, Guardia Zibila, Polizia Nazionala, Ertzaintza, Udaltzaingoa... gure zerbitzura egoteko sortuak izan arren ezinegona sortzen digute. Nahiago ditugu begibistatik at. Badakigulako konplexuz betetako askok boterearen erotika deskubritzen duela uniformeak jantzita. Arrazoi ugari dago uniformeak gertu nahi ez izateko, baina nagusia, uniformedunen artean ematen den putakume portzentaia handia dela esango nuke. Egunotan, Almerian gertatutakoak isla handia izan du. Norbaiti komerikoko zitzaien gertakizun hau komunikabideetan agertzea, honezkeru inork ez duelako sinisten Roquetas del Mar-ekoa gertakizun *isolatu* bat denik. Ni, Lasa eta Zabala torturatu eta asesinatu zituzten La Cumbreko jauregitik 100 metrotra bizi

naiz. Aurretik pasatzen naizenean ezin dut burutik kendu, nire etxetik 100 metrora, ikastolara joateko gosaltzen nuen bitartean, honezkeru kalean dauden uniformatu batzuk —eta kartzela zapaldu ez zuten euren buruzagiek— bertan egin zutena. Uniformeak beldurra ematen digute. Kolore guztietako uniformeek, gainera. Berdeak kritikatzeko dituzten *peneubista* amorratuek erraz ahazten baitute txapelgorri batek duela urte eta piko errepidean langile bati buruan tiroa bota zioeneko edo Arkauten *hil zitzaizen* hura edo...

Beldurrezko Asteko film japoniar baten proiektzioan gertatu zen. Kontua da filmeko azken borrokan, iraultzaile gazte batek soldadu bat labankadaz akabatzen duela, eta honek, japoniarrek soilik jar dezaketen aurpegi horietako batekin zera esaten dio hil aurretik: «Zergatik hiltzen nauzu? Ni ere pertsona bat naiz...». Eta orduan ikusleentz arteetik norbaitek zera oihukatu zuen: «Pues te jodes...haberte hecho panadero».

ESANA ▶



JUAN MARI ARZAK
SUKALDARIA

«Donostialdean jende xumea etorri ohi da guo mailako jatetxeetara, eta hori ez da munduko ia inon gertatzen»

«Mundua ikusi behar dugu, kulturaz jantzi, eta gero euskararen galbahetik pasatu»

TURISMOA ▶

NAGORE IRASTORZA

Turistez gainezka

Lo egiteko lekuen %90 beteta dago une honetan; atzerritar gehienak italiarrak, katalanak eta madrildarrak dira

Donostia turistez lepo dago. Hondartzetan, kalean, tabernetan, museotan... non nahi aurki ditzakegu hainbat herrialdetatik gure hiria bisitatzena etorri diren atzerritarak.

Turismo bulegoan ere sekulako ilara luzeak daude egunero. Informazio eske, eta lo egiteko leku bila hurbiltzen dira turistak.

Hotel eta ostatuen betetze mailari buruzko datu ofizialik ez dagoen arren, Manu Narvaez Kultura eta Turismo Ekintzeteko zuzendariak IRUTXULOKO HIRZARI esandakoaren arabera, «ia beteta daude, %90 inguru». Orain egun gutxi, U2ren kontzertuaren egunetan, ez zegoen lo egiteko leku bat ere libre hirian. Ondorioz, etorritako askok inguruko herrietan lo egin behar izan zuten.

Donostiak lo egiteko 5.250 leku ditu egun, hotelak, pensioak, aterpetxeak eta kanpina kontuan hartuz gero.

Erretserbak alde aurretik

Abentura moduan, azken unean lo egiteko leku bila hainbat turista ibili ohi den arren, gehienek alde aurretik egiten dituzte erretserbak. Hala ere, erretserbak gero eta denbora gutxiagorekin egiteko joera zabaldu dela esan digu Manu Narvaezek. «Turismo ohiturak aldatu egin dira, ateraldiak motzagoak dira, sarritan azken

momentuan erabakitzen dugu oporretara nora joan. Beraz, gero eta denbora gutxiagorekin egiten dira erretserbak».

Bestalde, bidaia agentziek azken unean egiten dituzten eskaintzek ere badute eragina oporrek hautatzeko orduan. «Jende asko eskaintza on baten zain egoten da. Donostian kasuan ez da hainbeste gertatzen. Mediterraneo aldean gehiago, baina eragina du», esan digu Manu Narvaezek.

Italiarrak nagusi

Turistei dagokienez, Donostian azken urteotako norabide bera mantentzen dela azpimarratu du Narvaezek. «Betiko moduan, Madril eta Bartzelonatik turista asko etorri zaizkigu. Aurten, bereziki Valentziatik etorritako turista asko daudela nabaritu dugu. Bestalde, italiarrak dira nagusi abuztuan eta ondoren, frantziarrak eta britainiarrak».

Abuztu amaiera arte, gutxienez, beteta egongo da hiria. Irailerako badira erretserbak ere, baina gutxiago.

Turismo Ekintzeteko arduradunak oso gustura daude aurtengo kanpainarekin.



Turismo bulegoa atzerritarrez gainezka dago egunotan. RAUL PEREZ

IRUTXULOKO
HITZA.INFO

Inkesta. Hau da IRUTXULOKO HITZAREN inkestaren webguneko galdera: gehiago ligatzen al da udan? Hauek dira orain arte jasotako emaitzak eta iritzi batzu:

- ▶ Bai % 59.
- ▶ Ez % 14.
- ▶ Berdin % 27.

▶ «Zalantzarik gabe, bi. Beroa, arropa gutxiago, herrietako jaiak... denboraldi aproposa da lotsak kendu eta ligatzeko». **Arrose.**

▶ «Harremanetan jartzea ezinezkoa da, emakumeek ez dakitelako barreneko edertasuna ikusten». **Etsia.**

▶ «Etsia matxista hutsa da. Nik uste dut Etsia etsita dagoela, ez emakumeek, ez beste inork, ez duelako bere edertasuna ikusten. Ez duelako, seguraski».

Matxismoa borrokatu!

▶ «Barreneko edertasuna ez ikusteaz gain, emakumeek ez dakite berea adierazten. Hemen behean dugu adibidea. Horregatik, gehienek modari jarraitzen diote itsu-itsuan, baita mintzairan ere. Horixe okerrena: itsu daudela, itsu ez daudenen mesedetan». **Etsia.**

▶ zure iritzia berri emateko, iritzia@irutxulokohitza.info eta Katalina Eleizegi 36 behekoa helbideak edo 943 44 65 32 faxa erabili, izena adierazita; HITZAK mozteko eskubidea du
▶ IRUTXULOKO HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik